

HEZITZAILE EZ BIOLENTOAK

Bake hezkuntzatik abiatuz, zuen seme-alabak biolentziarik ezaren abentura liluragarrian heztea proposatzen dizuegu. Hezkuntza proiektu honek gizabanakoaren aldaketarako gogoia eta konpromiso soziala nabarmentzen ditu, eta helburuen eta bitartekoen arteko oreka bilatzen du.

Metodologia ezbiolentoak bat erabiltzen duen hezitzailearen egitekoa ohikotik nahiko desberdina da. Beraren helburu nagusia zera da, bilaketa prozesu kolektiboa ahalbidetzea. Hezitzaile ezbiolentoaren xedea ez da “hutsik dagoen baso bat betetzea”, baizik eta ontzi horretan lehendik dagoena aztertzea eta basoa betetzea haurraren adiskideen laguntzaz.

Izan ere, hezitzaileek transmititu nahi dituzten ezagutzen erdiak beren ikasleen barruan “lotan” daude. Hezitzaileen zeregina ezagutza horiek esnatzea eta azalerratea da, berak dakiena kostatuta ahala kostatuta inposatu beharrean. Horregatik, bakea eta biolentziarik eza defendatzen duen hezitzailea bere ikasleekin bilaketa prozesu batean sartzen da; bere burua zalantzan jartzen du, ikasleek egiten duten moduan; bere emozioak eta zailtasunak aitortzen ditu, eta irtenbideak ez ditu mahuka azpian gordeta; talde guztiarekin kreatiboki lan egiteko tresna dinamiko batzuk besterik ez ditu.